

SAIAKERA

Zentzu komunaren bidetik

SINESMENAK ETA USTEAK


Agustin Arrieta-Urtizberea
Alberdania, 2010
179 orrialde, 14 euro

Iban BALERDI

«Sinets al dezaket nahi dudan guztia? Eduki al dezaket nahi dudan iritzia edo ustea? Askatasun osoa al dago edozein uste, iritzi edo sinemen edukitzeko? Nola finkatzen edo errotzen dira uste, iritzi eta sinemenak? Zein da uste, iritzi eta sinemenen eginkizuna? Ba al dago araurik zerbait uste izateko edo sinesteko? Uste izatearen jokoak nolakoak da? Zeintzuk dira balizko joko horren arauak?»

Honako galdera hauekin hasten da Agustin Arrieta-Urtizberearen liburu berria. "Istripuak" ipuin bilduma argitaratu ostean, saiakera batekin datorkigu oraingoan EHUko Filosofiako irakaslea. Bertan, izenburuko kontzeptuetatik abiatuz, zentzu komunaren alde egiten du egoera eta eredu desberdinen aurrean, ikuspuntu dogmatiko eta azalekoen arteko espazioaren alde, alegia.

Beraz, sinemen, iritzi eta usteen (des)berdintasunak aztertu ondoren, usteak gizakiongan finkatzeko hiru eredu deskribatzen ditu, hala nola ostrukarena, autoritatearena eta koherentziarena. Lehenengoan, zalantzak baztertzeko uste bat bereganatzen du pertsonak eta gero tinko eusten dio uste horri, ostrukek moduan, beste guztiari muzin eginez. Bigarrena, artzaina eta artaldearen adibi-



dean oinarritzen da; eta hirugarrengoa, berriz, aurrez ditugun usteak gailentzen dira ebidentzien gainetik.

Horien ondotik, zentzu komunaren eredu aztertzen du «ia-ia inkontzienteki erabiltzen dugun» hori. Bere esanetan, zientzia zentzu komunaren garapen bat litzateke, baita filosofia ere, hirurak bat eginda ulertzen dituelarik. Hemendik kanpo uzten du, ordea, erlijioa.

Erljioari eta beronekin gutxienez zeharka lotutako zenbait kontzepturi beste atal bat eskaintzen die liburuaren bukaran. Zientifikoki probatu gabekoetan sartzen garenez, eremu honetako arauak ez dira berdinak, nolabait esatearren, sin-

teko askatasun handiagoa baitago. Egileak uste eta sinemen guztiak zalantzan jartzearen alde egiten du, guztiak eztabaidagai bihurtzearen alde. Bide honetan erlijioek –katolizismoaren kasuan gutxienez– beren esparruak nola finkatzen dituzten kontatzen du, balioen mundua beraiena balitz bezala jokatu. Ondorioz, erlijiorik gabeko gizarteak baliorik gabekoak lirateke, azken boladan sinestarazi nahi diguten analisia.

Erljioari atxikitzen zaion kapituluari, suizidio nahiz abortuaren gaineko analisia ere egiten ditu, eta bietan ateratzen dituen ondorioak antzekoak dira. Kontzeptu eztabaidaekin izateak, beste fase batera igaro direla. Niri interesgarria abortuari buruzkoa iruditu zait, hain gai korapilatsua izanik eskertzekoa baita horren adibide grafikoak eskaintzea.

Azken finean, oso liburu pedagogikoa egiten saiatu da egilea, kontzeptuak ahalik eta modurik ulerterrazenean azalduz. Adibideak erabiltzen ditu etengabe azaltzen dituenak hobeto adierazteko, kaleko adibideak, eguneroko bizitzakoak. Alde horretatik, eskoletarako modukoa da, hasieran esan moduan, dogma eta fribolitaketatik aparte, usteak beste modu batean jaso daitezkeela defenditzen baitu. Eta datuak ikasteko baino, pentsatzen ikasteko behar luke eskolak.

Bukatzeko, merezi du aipatzea liburuaren amaieran edozeini luzatzen diola gonbita edonolako iruzkin edo kritikarik egin nahiko balu, bere helbide elektronikoa horretarako lagaz.



Mikel IBARGUREN

La Moralejan dago

Memorian aztarrika egin eta euskal literaturak bere lehen urratsak Gurseko espetxe batean eman zituela gogoratuko dugu, han zegoela idatzi baitzuen Bernat Etxeparek euskaraz idatzitako lehen liburua.

Jokin Urainek ere La Moraleja espetxetik idatzi digu bere azken liburua, eta ia bostehun urte igaroagatik, Etxepare berrien literatur lanen kronologia egin du "Ez dago etxean" bilduman. Ahanzturaren galbahean betiko galtzen utzi aurretik, euskal literaturaren parte den errealtate hori jaso eta transmititu nahi izan digu. «Ihesa eta kartzela, espetxea eta literatura, giltzapeko bizimodua» ekarri du hizpidera mendaroarrak.

Ziega barruan irudikatzen dut idazlea. Leiho ertzetik munduari so, harago begiratu nahirik. Ahalik eta urrutien. Fikziorik gabeko liburua da, fikzioa inoiz baino beharrezkoagoa duten arren. Ihesa dute obsesio eta hizkuntza bakarra: gatibutza. Eta ametsena, gaineratuko nuke.

Minez eta zauriez gain, edozein anekdotaz mintzo zaizkigu, maitasunari abesten, isolamendua borrokatzen. "Ez dago etxean" etxean egon behar lukeenaren metafora garbia da, dudarik gabe.

«Bakardadeak askoz leku handiagoa du urruntasunak baino, bakardadeak gaintu egiten duela urruntasuna, esango nuke» dio itxaropena eta ihesa sinonimo diren barrunbeetan. Denboraren nozioa armiarna baten erantzunean laburbiltzen den etxabeotan.

Gursetik La Moralejaraino doan bide luzea egin du euskal literaturak historia deitzen den labirinto horren barruan. Ezin ukatzeko ibilbidea.

Dena debekatua duten honetan ez dakit literaturarako garai hoberean diren, baina Etxeparegandik hasita gaurdaino «Libertatia nola baita gauzetako hobena» idazten jarraitzen dute ihesa amesten duten preso idazleek edo idazle presoek. Ihes ederraren zain literatura ere ihesbideetako bat dela jakitun.

KALERATU BERRIAK



ETIKA, ABENTURA
ETA MAITASUNA

DENA SUTAN
Suzanne Collins. Itz: Koro Navarro
Batera Saila, 2010
450 orrialde. 21,50 euro

Alberdaniak eta Ereinek sortu berri duten Batera sailaren baitan argitaratutako lanetako bat da "Dena sutan". "Gose jokoak" izeneko trilogiaren bigarren nobela honetan, Suzanne Collinsek Katniss Everdeen istorioarekin jarraitzen du. Etorkizunean kokatu arren, gaurkotan betea duen suspense nobela bat.



DARWINEN
UNIBERTSOA

**DARWIN ETA DISEINU INTELI-
GENTEA** | Francisco J. Ayala
Gaiak, 2010
245 orrialde. 19 euro

Lan honetan, Darwinen pentsamendua eta eboluzioaren gaiak ikasteko sarrrera egiten du Ayala, 2010eko Templeton sariaren irabazleak. Egileak erregistro fosila eta genetika aztertzen ditu, horiek baitira eboluzioaren aldeko frogak nagusiak. Horrez gain, ideologiarekin zerikusia duten gaiak ere aurkezten ditu.



SOBRE LO ABSURDO
DEL ÉXITO

DOS HOMBRES SIN DESTINO
Montero y Maidagán
Pepitas de calabaza, 2010
132 páginas. 12 euros

"Dos hombres sin destino" es la adaptación del texto que fue llevado al teatro por Pánico Escénico. En ella, dos individuos cuarentones al borde de la crisis repasan sus vidas sentados en un sofá frente al televisor. Al rato descubren que siempre han estado sentados en un sofá... en ese mismo momento deciden "ponerse las pilas".



LOS ANARQUISTAS
EN LA GUERRA CIVIL

LA REVOLUCIÓN LIBERTARIA
Heleno Saña
Laetoli, 2010
432 páginas. 25 euros

Según Heleño Saña, de 1936 a 1939 tuvo lugar en el Estado español «mucho más que una Guerra Civil; también fue el inicio de una revolución social». El autor, quien admite no haber olvidado dicha revolución, da las claves para entender el devenir del movimiento libertario y la historia contemporánea del Estado.